

BEGIRADA LITERARIOAK IRAGANARI

36KO GERRAREN IRUDIKAPENAK EUSKAL ELEBERRIGINTZAN

Amaia Serrano-Mariekurrena

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

CIP. *Unibertsitateko Biblioteka*

Serrano-Mariezkurrena, Amaia

Begirada literarioak iraganari: 36ko gerraren irudikapenak euskal eleberrigintzan / Amaia Serrano-Mariezkurrena. – [Leioa]: Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, D.L. 2024. – 270 p. ; 22 cm. – (Euskal Literatura Saila ; 27)

Bibliografia: p. 259-270.

D.L.: BI 00648-2024. — ISBN: 978-84-9082-675-1.

1. Novela vasca. 2. Memoria colectiva. 3. País Vasco – Historia – 1936-1939 (Guerra civil) – Literatura y guerra.

891.69.09

891.69: 94

Liburu honek LAIDA ikerketa-taldean izan zuen abiapuntua, eta HARIAK ikertaldean egin du bidea (GIU22/08). Bien babesari esker gauzatu ahal izan da.



Euskal Literatura Saila bildumaren zuzendaria: Jon Kortazar

Azaleko irudia: Susana Jodra Llorente

Hizkuntza-orrazketa: UPV/EHUko Euskara Zerbitzua

UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzak lagundutako liburua.

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
Euskal Literatura Saila bildumaren ISBN: 978-84-9860-730-7

ISBN: 978-84-9082-675-1

Lege gordailua: LG BI 00648-2024



Bizitza bizigarriago egiten didaten emakumeei

Oihani eta Ibai

Gerra bizipen intimoegia da. Eta gizakiaren bizitza bezain amaigabea

Svetlana Aleksievitx

*Memoria zer den ez dakit
sikiera gorputz atala edo gaixotasuna balitz
agian asmatuko nuke deskribatzen
ezaugarriak sintomak neurriak
lot balekioke urtaro edo sasoi bati
epe mugaren bat jarriko nioke
baina memoriak
uste dut lekukoak etsaiak
lagunak eskatzen dituela
elkar hartzea
bat etortzea nolabait...
nago memoria dela
nahitaez bihotzerreaz irensteko zerbait*

Jose Luis Otamendi

AURKIBIDEA

Atarikoak	13
1. Memoria ikerketak	19
1.1. Memoria kolektiboaren ubidea	19
1.2. Memoria kulturalaren errekastoa	22
1.3. Gogoratze prozesuetan barna: postmemoria eta memoria afiliatiboa	24
1.4. Oroitzapenen heldulekuak: gomuta-lekuak eta aitormen- lekuak	29
2. Metodologia	35
2.1. Narratzailea	36
2.2. Pertsonaien irudikapena eta rola	40
2.3. Genero irudikatzeak	42
2.4. Espazioa	49
2.5. Denbora	51
3. Nobelen azterketa	53
3.1. Ohitura eleberriak (1937-1957): gerra-hotzen lehen du- rondia euskal eleberrigintzan	53
3.1.1. Narratzailea, gerrako kontalari	57
3.1.2. Pertsonaien ibilerak	59
3.1.3. Genero irudikatzeak: gizon-emakume eredu tra- dizionalak nazionalismoaren euskarri	66
3.1.4. Espazioaren eraikuntza	73
3.1.5. Gerra-denboran	74
3.2. Eleberri esperimentalak (1979-1984): gerra kontatzeko forma berriak	77
3.2.1. Askotariko narratzaileak errealitatearen konplexu- tasuna ehuntzeko	80
3.2.2. Pertsonaien heterogeneotasuna	84

3.2.3.	Genero irudikatzeak: maskulinitate disidenteen lehen iradokizun herabeak	98
3.2.4.	Espazio aniztasuna: barne eta kanpo geografiak. . .	104
3.2.5.	Askotariko denborak iraganaren kontabideetan. . .	108
3.3.	Eleberri errealistak (1989-1999): gerra bakarra, (h)egiak ugari.	112
3.3.1.	Narratzaile subjektiboen munduak.	115
3.3.2.	Pertsonaien gatazkak.	124
3.3.3.	Genero irudikatzeak: lehen emakume aktibistak gizonen munduan.	142
3.3.4.	Espazioa: konkista publikoak eta pribatuak.	149
3.3.5.	Denbora: narrazioaren biran.	156
3.4.	Eleberri memorialisten sendotzea (2000-2010): iragana orainaldiko begiradapean	162
3.4.1.	Narratzailearen bila: kontalariak agertuz eta desgertuz	166
3.4.2.	Pertsonaiak gerraren sarean: korapiloak askatzen. .	177
3.4.3.	Genero irudikatzeak: emakumeen gorputzak eta ahotsak lehen aldiz agerian	198
3.4.4.	Espazio errealak eta sinbolikoak	213
3.4.5.	Denbora: bi plano narratiboren arteko jokoak	226
4.	Ondorio orokorrak	235
4.1.	Memoriaren eraikuntza eta idazketa politikoa.	235
4.2.	Memoria generizatua	241
4.3.	<i>36ko Gerrari buruzko eleberrigintza</i> euskal eleberriaren historian.	244
4.4.	Gerraren funtzioaren araberako tipologia	255
	Erreferentzia bibliografikoak	259
	Laburdurak.	259
	Obra literarioak	259
	Bibliografia.	260

Atarikoak

Euskal filologia ikastera joatearekin bat jarri nintzen iraganaren lorratzei begira, eta euskal literaturaren ikasgaiari heldu nien memoriaren irudikapenei lehen aldiz. Aurretik, gerrari buruzko oihartzunen bat edo beste jaso nuen etxean, baina inoiz ez *Abuztuaren 15eko bazkalondoan* entzuten den etengabeko marmar luzea. Jakin nuen etxe berean bi bandoetako pertsonak elkarrekin bizi zirela, mutur-tuta, isilpean elkarri errua leporatuz, baina batzuei, biziraun beharrez, hitzak zintzurrean trabatuta geratu zitzaizkiela. Horregatik, literatura izan da niretzat iragan horretara konplizitate eta askatasun handiagoz gerturatzeko bidea. Zehazki, Jokin Muñozen *Antzara-ren bidea* eleberririk jarri ninduen gerrako jazarpenen arrastoan, eta Uxue Alberdiren *Aulki jokoak* eskaini zizkidan emakume gisa garai hura sentitzeko hitzak. Harrezkero, euskal eleberrigintzak gerra nola kontatu eta azaleratu izan duen ezagutzeko gogoia izan dut. Jakin-min hori abiapuntu ekin nion ikertzeari, eta 2019an amaitu nuen *1936ko Gerra Euskal nobelagintzan: Memoria Ikerketak narratologia kulturalaren ikuspegitik* doktorego tesia, liburu honen oinarrian dena.

Adituek diotenez, 36ko Gerrari buruzko oroitzapenak ez dira beti hirugarren edota laugarren belaunaldietaraino iritsi familia testuinguruan, eta horrek maiz ekarri du iragan horretara jotzeko beharrik ez sentitzea, afektiboki ere urrunekotzat harturik. Horrela, isiltasunaren eta diskurtso ofizialen ideologiek eguneroko errealtatea baldintzatu izan digute, eta gure begiradaren norabidea markatu. Gainera, iragana eremu labainkorra da, eta gomutak azaleratu

ahala aienatzen dira gaur egun. Andreas Huysenek (2000) esan bezala, kapitalismo basatiaren eta XXI. mendeko teknologia berrien ondorioz, denbora-esperientzia ezberdina bizitzen ari gara. Horregatik, literaturak (bestelako kultur sorkuntzek bezala), ematen du gerrari buruz pentsatzeko eta memoria horretan kokatzeko abagunea.

Asko izan dira gurean gerra fikzio-gai hartu duten idazleak, eta gai kanoniko ere bihurtu dela esan dezakegu. Horregatik, hautaketa bat egin ostean, hauek izan dira ikerketako corpusa osatu duten obrak, kronologikoki¹:

- Arruti, Txomin. (1937). Loretxo: Eleberri edestia. *Eguna*² 39, 42, 45, 50, 53, 56, 57, 60, 64, 68, 69.
- Eizagirre, Joxe. (1948). *Ekaitzpean*. Ekin.
- Irazusta, Jon Andoni. (1991) [1950]. *Bizia garratza da* [BGD]. Erein.
- Altube, Seber. (1979) [1957]. *Laztantxu eta Betargi* [L&B]. Lur.
- Arrieta, Joxe Austin. (1994) [1979]. *Abuztuaren 15eko bazkalondoa* [A15B]. Elkar.
- Irigoiñen, Joan Mari. (1982). *Poliedroaren hostoak* [PH]. Erein.
- Izagirre, Koldo. (1984). *Euzkadi merezi zuten* [EMZ]. Hordago.
- Iturralde, Joxe Mari. (1989). *Izua hemen* [IH]. Erein.
- Saizarbitoria, Ramon. (1996). *Bihotz bi. Gerrako kronikak* [BB]. Erein.

¹ Corpusari erreferentzia egiteko 36ko Gerrari buruzko eleberrigintza izendapena erabili dut, eleberriok neurri handi batean azpigenaro gisa sailka daitezkeela iruditzen baitzait. Horrez gain, aztergai ditudan obrak aipatzeko, lanean zehar siglak erabiltzea hobetsi dut hitz bat baino gehiagoko izenburuen kasuan, erreplikapen astunak saihesteko (ik. laburdurak erreferentzia bibliografikoen atalean). Bestalde, idazle berberaren lan bat baino gehiagok gerra hizpide izan duenean, horietarik bat aukeratu dut, 36ko Gerrari buruzko eleberrigintzari egindako ekarpenik baliotsuena kontuan hartuta. Halaber, zerrendatik at utzi ditut Euskaltzaindiaren *Auspoa* bildumako lekukotza liburuak, estetikoki ez ezik, gainerako eleberrien literatur helburuetatik aldentzen direlako (azalpen gehiagorako jo 3.2 atalera). Azkenik, honezkero irakurlea jabetuko zen bezala, corpusean ageri diren idazle ia guztiak gizonezkoak dira, haiek izan direlako 1937-2009 bitartean gerrari buruzko eleberriak idatzi dituztenak. Gerraz mintzatu diren lehen emakumezko idazleak Eider Rodriguez eta Miren Agur Meabe dira, lehenengoa *Eta handik gutxira gaur* (2004) ipuin-bildumako izen bereko narrazioarekin eta bigarrena haur eta gazte literaturako *Urtebete itsasargian* (2006) obrarekin. Uxue Alberdiren *Aulki-jokoaz* (2009) geroztik, emakume gehiagok argitaratu dituzte 36ko Gerrari buruzko eleberriak: Garazi Goiak *Txartel bat (des)herrira* (2013), Garbiñe Ubedak *Hobe isilik* (2014), Antxiñe Mendizabalek *Odolekoak* (2020) eta Amaia Telleriak *Haize lekuak* (2020), besteak beste.

² Jatorrian *Eguna* aldizkarian atalka argitaratu bazen ere (aipaturiko zenbakietan), *Armiarmako* bertsioa erabili dut, eta hori da bibliografian aipatu dena.

Mujika Iraola, Inazio. (1999). *Gerezi denbora* [GD]. Alberdania.
Atxaga, Bernardo. (2003). *Soinujolearen semea* [SS]. Pamiela.
Muñoz, Jokin. (2007). *Antzararen bidea* [AB]. Alberdania.
Alberdi, Uxue. (2009). *Aulki-jokoa* [AJ]. Elkar.

Liburu horietako gehienak euskal literatur sistemako kano-
nean daude (bereziki 80ko hamarkadatik aurrerakoak), argitalpen
kopuru handia izan dute eta sari ugari jaso dituzte (Euskadi Saria,
Espainiako Kritika Saria, Azkue Saria, Irun Saria, Bizkaiko Diputa-
zioaren nobela saria, Zabalpen saria). Horrez gain, idazleen kapital
sinbolikoak eta literaturaren irakaskuntzako idazle eta liburu aipa-
garrien artean agertzeak posizio pribilegiatua eman diete eleberrioi
(ik. Alonso, 2010). Are gehiago, horietako asko izan dira lehenago
ere lan akademikoetan aztertuak: *Loretxo* (Toledo, 2009b), *Ekaitz-
pean* (Kortazar, 2007), *Abuztuaren 15eko bazkalondoa* (Uraga,
1988), *Poliedroaren hostoak* (Mercero, 2012), *Izua hemen* (Mercero,
2012, 2017), *Bihotz bi* (Aldekoa, 2003; Olaziregi, 2004; Apala-
tegi, 2009; Serrano-Mariezkurrena, 2013; Arroita, 2015; Otaegi eta
Otsagabia, 2019), *Gerezi denbora* (Rabelli, 2008, 2012), *Soinujolea-
ren semea* (Kortazar, 2009b; Arroita, 2011), *Antzararen bidea* (Se-
rrano-Mariezkurrena, 2008, 2012). Eta euskal eleberrien historietan
ere aipatu izan dira (Olaziregi, 2002; Kortazar, 2003a; Aldekoa,
2004 eta Retolaza, 2007). Beraz, obra hauek gomuta-leku funtzioa
betetzeko aukera beretu dutenez, beharrezko deritzot memoria kul-
turalak (memoria literarioak, zehazki) gerraren zer irudi transmiti-
tzen duen ondorioztatzeari.

Ikerketa honen asmo nagusia euskal eleberrigintzak 36ko Ge-
rraz egindako irudikapenak aztertzea izan da hasiera-hasieratik, eta
helburu hori lortzeko lau hipotesi izan ditut akuilu, zeintzuek, era
berean, ikerketaren azpi-xedeak ardaztu dituzten:

1. Euskal eleberrigintzak 36ko Gerraren memoria, oro har,
ikuspegi nazionalista jeltzale edota abertzale batetik eraiki
zelako ustea nuen, eta hori argitzeko eleberrietan gailentzen
ziren diskurtsoak azaleratu nahi izan ditut.
2. Gerrari buruzko memoria kolektiboetan eta kulturaletan
emakumeak eta gizonezkoak ezberdin irudikatu izan direla
kontuan hartuz, euskal eleberrigintzan gaia maskulinizatuta
zegoela iruditzen zitzaidan, eta hori egiaztatzeko, genero
ikuspegitik zer proposamen literario egiten den aztertzea
izan dut beste ardatzetako bat.

3. 36ko Gerra hizpide duten eleberriek azpigenero berezitu gisa euskal eleberriaren historiari ekarpenen bat egin diotelakoan, euskal eleberriaren historian non kokatzen diren ikustea izan da beste helburu bat.
4. Azkenik, jabetu nintzen gerrak ez duela betebeharrak berbera eleberri guztietan, eta, beraz, euskal eleberrigintzan 36ko Gerraren kontaktaren funtzio narratiboak zehaztu eta horren araberrako sailkapen bat egitea izan dut azken asmo.

Helburu horiek erdiesteko, liburuaren lehen atalean Memoria Ikerketetan erabili izan diren kontzeptuez eta prozesuez arituko naiz. Bigarren atalean narratologia kulturalaren helduleku metodologikoak deskribatuko ditut, isilarazitako komunitateen prozesu kulturalak ulertzeko baliagarria delakoan. Hirugarren atalean alderdi enpirikoari helduko diot, eta horren barneko kapituluak eleberrien korrante estetikoaren arabera bereiziko ditut, guztira lau garai banatuz. Labur esateko, 36ko Gerrari buruzko lehen euskal eleberrigintza ohitura eleberri gisa sailkatu dut, lau obra hauekin: *Loretxo* (1937), *Ekaitzpean* (1948), *Bizia garratza da* (1950) eta *Laztan-txu eta Betargi* (1957). Bigarren eleberrigintzarako jauzia handia da, *Auspoa* saileko lekukotza liburuak kontuan hartu ez ditudanez, ia-ia 80ko hamarkadan kokatzen baikara. Bitartean euskal eleberrigintza modernizatu zen eta, autonomia literarioarako baldintzak eskuratuta, bigarren garaian espermentalismora jo zuten eleberriak ditugu: *Abuztuaren 15eko bazkalondoa* (1979), *Poliedroaren hostoak* (1982), *Euzkadi merezi zuten* (1984). Hirugarren eleberrigintza, esperentalismoa utzirik, errealismo betean sartzen da: *Izua hemen* (1989), *Bihotz bi* (1996) eta *Gerezi denbora* (1999). Laugarren eleberri multzoan kokatzen diren obrak, berriz, *eleberri memorialista* deituriko azpigeneroaren ezaugarriak dituzte (Lauge eta Cruz, 2012): *Soinujolearen semea* (2003), *Antzararen bidea* (2007) eta *Aulki-jokoa* (2009). Azkenik, helburuen araberrako ondorio orokorrak aletuko ditut.

Esan bezala, eleberri horien lehen irakurketa doktorego tesian egin nuen, baina, orduz geroztik, irakurketak osatuz, egokituz, aldatuz joan naiz. Ideia orokorrak mantendu ditudan arren, badira liburu honetarako gehiago zehaztu nahi izan ditudanak, batez ere generoaren atalari dagozkionak. Berrirakurketa prozesu horretan, lankide, lagun eta familiakoekin izandako elkarrizketa, eztabaida eta iruzkinek eleberrien interpretazio sakonagoak eragin dizkirate, eta ahots horien oihartzuna ere bildu nahi izan dut liburuan (horregatik darabilt lehenengo pertsona plurala ikerlanean zehar, bide-

lagunei keinu egitearren). Bihoakie nire esker on publikoa guztiei. Joni, proiektu honetan sinisteagatik eta pazientziagatik; Iboni, liburu honi buruzko gomendio praktiko eta elkarrizketa aberatsengatik; Hariak ikertaldeko kideei (Haizea, Garazi, Ane, Jone, Maite eta Ibon), kolektiboki pentsatzeko formakuntza espazio bikaina eskaintzeagatik; Tolosako Irakurle Talde Feministako kideei, begirada finitzen laguntzeagatik; Borjari eta aitari, irakurketa arretatsuagatik eta iradokizunengatik. Liburuaren idazketa-lan bakartia eramangarriago bihurtu didatenak ere aipatu nahi ditut, ezinbesteko sostengu izan baitituz: ama, Joxepi, Garbiñe, Miren, Ursula, Julia, Uxue, Lorena eta Mónica, besteak beste. Eskerrik asko eta bat gehiago zuei ere.

Jakina, ez naiz bidegurutze honetara heldu den lehena. Literatur kritikan milurte berritik aurrerako ikerlanak izan ditut hauspo: Ana Luengoren *La encrucijada de la memoria* (2004) liburuaren izan zen lehenetarikoa, eta Antonio Gómezen *La guerra persistente. Memoria, violencia y utopía: representaciones contemporáneas de la Guerra Civil española* (2006) eta Carmen Morenoren *Las huellas de la Guerra Civil: Mito y trauma en la narrativa de la España democrática* (2006) liburuek jarraitu zioten. Hortik aurrera hainbat ikerlariren aztergai bihurtu zen gerraren irudikapen literarioa, ondorengo adibideek erakusten duten bezala: Maria Correderen *La guerra civil española en la novela actual. Silencio y diálogo entre generaciones* (2010) ikerlana, Hans Lauge eta Juan Carlos Cruzek koordinaturiko *La memoria novelada: Hibridación de géneros y metaficción en la novela española sobre la guerra civil y el franquismo (2000-2010)* (2012) artikulua bilduma, Becerraren *La guerra civil como moda literaria* (2015), Mariela Sánchezen *Mala herencia la que nos ha tocado. Oralidad y narrativa en la literatura sobre la Guerra Civil y el franquismo* (2018) ikerlana, eta liburu honetan zehar aipatu (zein aipatu gabe utzi) diren lanak.

Euskal literatur kritikari dagokionez ere bidea zabaltzeko didate Ana Toledok koordinatutako *Gerra Zibila eta euskal literatura* (2009a) monografikoak, Mari Jose Olaziregik koordinaturiko *Literaturas Ibéricas y memoria histórica* (2011a) RIEVeko ale bereziak, Amaia Serrano-Mariezkurrenak apailatutako *Gatazken lorratzak* (2012) liburuak, Izaro Arroitarren *Ramon Saizarbitoriaren nobelagintza memoria ikasketen ikuspegitik* (2015) doktorego tesiak, Izaro Arroita eta Lourdes Otaegik koordinaturiko *Oroimenaren lekuak eta lekukoak* (2016) lanak edota Lourdes Otaegiren eta Garazi Otsagabiaren *Beste gerrako kronikak: Bikote harremanak eta indarkeria Ramon Saizarbitoriaren eleberrigintzan* (2019) ikerlanak, batzuk aipatzearren.

Ekarpen horiei guztiei esker osatu ahal izan dut liburu hau.

Memoria ikerketak

Oroimena gizakion sortzetiko gaitasuna da. Haren beharra dugu iragana atxikitzeko eta nor garen jakiteko; gure nortasuna finkatzeko. Horregatik hainbat esparru eta ertzetatik aztertu izan da, Grezia Klasikotik hasi eta gaur egunera arte (oroit erreterikako diskurtsoa osatzen zuten bost zatietako bat zela). Haatik, ordutik hona kontzeptuaren inguruko hausnarketek hura ulertzeko moduan aldatuta eta zehaztapen ugari ekarri dituzte. Garai haietan, oroimena pentsamenduaren gaitasun bat zen, gauzen betiereko oinarri edo izate aldaezinetara iristea ahalbidetzen zuena. Oroitzea ez zen iragana eraikitzea, denboratik askatu eta gauzen izatea gordetzen zuen jatorria aurkitzea baizik. Iraganaz pentsatzeko xx. mende amaieran sortutako Memoria Ikerketek, ordea, oroitze prozesu ezberdinak sortutako kontzeptu berriak sortu dituzte, eta horiei helduko diegu kapitulu honetan.

1.1. Memoria kolektiboaren ubidea

Maurice Halbwachs izan zen Memoria Ikerketen abiapuntua ezarri zuen aditua, Henri Bergsonen eta Émile Durkheimen ikaslea; hari zor zaizkio memoria kolektiboari buruzko lehen hausnarketak. Nolanahi ere den, Halbwachsek ezin izan zuen prestatzen ari zen lana argitaratua ikusi, Buchenwaldeko kontzentrazio esparruan hil baitzuten 1945eko martxoaren 16an. Eskuizkribua haren alabak gainbegiratu zuen eta *La Mémoire collective* (1968 [1950]) izenburuko saiakeran argitaratu zituen aitaren gogoeta-oharrak.

Lan horretan garatzen diren ideiek eta haren idazketaren tes-tuinguruak saiakera itxura ematen diote liburuari, terminoaren zentzurik hertsienean, eta paradoxa batzuk sortzen dituzte: iragana

berreskuratzeko moduei buruzko hausnarketek indibidualaren eta sozialaren arteko beharra eta aldea nabarmentzen dute, betiere memoria kolektiboa indibidualari gailenduz; eta gogoratzearen eta identitatea eraikitzearen inguruko gogoetak ere jazarpenez beteriko esparru literal eta sinbolikoan harilkatzen dira.

Orduz geroztik, asko izan dira memoria indibidual eta kolektiboa terminoak azaltzen saiatu direnak. Esaterako, Halbwachsen saiakeran ageri diren ezbaiak abiapuntutzat hartuz, Paul Ricoeurrek *La lectura del tiempo pasado*³ (1999) liburuan memoriaren bereizgarriak aletzen ditu. Lehendabizi, gizabanakoaren memoriaren hiru ezaugarri ematen ditu. Alde batetik, Halbwachsek esandakoan sinesten du (norbere oroitzapenak ez dira beste inorenak) eta *memoria* nor bere burua bezalakoa izatea eragiten duen nortasun bihurkariaren denboran-luzatze-bat dela adierazten du. Bestetik, *memoria* kontzientziaren eta iraganaren benetako lotunetzat du, zeinak ziurtatzen duen gizabanakoaren jarraitutasuna denboran zehar. Azkenik, denboraren harian, iraganetik etorkizunerako bidean kokatua izatearen sentipena memoriarekin erlazionaturik dagoela esaten du (Ricoeur, 1999: 16-17).

Hausnarketa ildo horretan, Ricoeurrek gizabanakoaren memoriarenak soilik diren hiru ezaugarri finkatuagatik (izaera propioa, jarraitutasuna eta iragan-etorkizun polaritatea), memoria kolektiboaren beharra ere ikusten du, Halbwachsek adierazi bezala, gizabanakoak besteen laguntzaz gogoratzen duelako eta oroitzapen batzuk besteen kontakizunetatik hartuak direlako (Ricoeur, 1999: 17). Gomutak narrazio bihurtzen direnean, hau da, azaleratzen direnean, oroimenak harilkatu egiten ditu (Ricoeur, 1999: 16) eta, ondorioz, gogora ekarritakoa azaltzeko, gizabanakoari ezinbesteko zaio hizkuntza komun bat erabiltzea (Ricoeur, 1999: 20). Modu horretan, hizkuntza-zeinu horiek nortasun-ezaugarri bihurtzen dira eta memoria indibiduala lehenesten dutenei zail zaie gizartearen eraginetatik urruntzea. Beraz, honako hau uler daiteke: memoria kolektiboa gizabanakoaren kontzientzia sortzen den une berean eraikitzen da. Hori da, hain zuzen, ikerlari batzuen ustez gertatzen dena: «(...) memory as being so socially encrusted that individual memory cannot be separated from social influences on memory» (Hirst eta Manier, 2008: 186).

³ Liburu honek izaera berezia du, Ricoeurrek Madrileko Unibertsitate Autonomoan 1996an emandako ikastaro batean oinarritzen baita. Gainera, testua jatorrian gazteleraz plazaratzen da, *La Mémoire, l'histoire, l'oubli* (2000) liburuaren aurrerapen gisa.